euskal trenbide sarea

Elgoibarko (Gipuzkoa) Arriaga poligonora sartzeko eta trenbidea bikoizteko eraikuntza-proiektua eguneratzea

Memoria

2025eko azaroa

TYPSA

Aurkibidea

MEMORIA 1

MEMORIA 1

1. SARRERA ETA XEDEA 1

2. AURREKARIAK 1

3. EGUNGO EGOERA 3

3.1. KARTOGRAFIA ETA TOPOGRAFIA 3

3.2. GEOLOGIA ETA GEOTEKNIA 3

3.2.1. Materialen karakterizazio geoteknikoa 4

3.2.2. Lur-erauzketak 4

3.2.3. Betegarriak 5

3.2.4. Zabalgunea 6

3.2.5. Betegarriaren / lur-erauzketaren zimendua bermatzea 6

3.2.6. Egiturak 6

3.3. PLANGINTZA 9

4. LEGEZKO XEDAPENAK ETA ARAUDIA BETETZEA 10

4.1. KOSTALDEEI BURUZKO 22/1988 LEGEA BETETZEN DELA ADIERAZTEA 10

4.2. EUSKADIKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI BURUZKO 10/2021 LEGEA BETETZEA 10

5. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA 11

5.1. TRENBIDEAREN TRAZADURA 12

5.2. BIDEGORRIA 15

5.3. PLATAFORMA ETA TRENBIDEA 16

5.4. EGITURAK 19

5.4.1. Zubia handitzea 1+130 KPan 20

5.4.2. Pasabide berria 1+130 KPan 22

5.4.3. Zubi berria 1+280 KPan 25

5.4.4. Pasabide berria 1+280 KPan 27

5.4.5. ZDLa handitzea 1+250 KPan 28

5.4.6. ZDLa handitzea 1+380 KPan 30

5.4.7. Horma 1+434 KPan 31

Índice

1. INTRODUCCIÓN Y OBJETO 1

2. ANTECEDENTES 1

3. SITUACIÓN ACTUAL 3

3.1. CARTOGRAFÍA Y TOPOGRAFÍA 3

3.2. GEOLOGÍA Y GEOTECNIA 3

3.2.1. Caracterización Geotécnica de los Materiales 4

3.2.2. Desmontes 4

3.2.3. Rellenos 5

3.2.4. Explanada 6

3.2.5. Apoyo del cimiento del Relleno / Desmonte 6

3.2.6. Estructuras 6

3.3. PLANEAMIENTO 9

4. CUMPLIMIENTO DE DISPOSICIONES LEGALES Y NORMATIVA 10

4.1. DECLARACIÓN DE CUMPLIMIENTO DE LA LEY 22/1988 DE COSTAS 10

4.2. CUMPLIMIENTO DE LA LEY 10/2021 DE ADMINISTRACIÓN AMBIENTAL DE EUSKADI 10

5. DESCRIPCIÓN DEL PROYECTO 11

5.1. TRAZADO FERROVIARIO 12

5.2. BIDEGORRI 15

5.3. PLATAFORMA Y VÍA 16

5.4. ESTRUCTURAS 19

5.4.1. Ampliación puente PK 1+130 20

5.4.2. Nueva pasarela PK 1+130 22

5.4.3. Nuevo puente PK 1+280 25

5.4.4. Nueva pasarela PK 1+280 27

5.4.5. Ampliación ODT PK 1+250 28

5.4.6. Ampliación ODT PK 1+380 30

5.4.7. Muro PK 1+434 31

5.5. HIDROLOGÍA Y DRENAJE 32

5.5. HIDROLOGIA ETA DRAINATZEA 32
5.5.1. Hidrologia 32
5.5.2. Igarotzen diren errekak 33
5.5.3. Proiektatutako drainatze-sarearen deskribapena.....34
5.6. INGURUMEN-INTEGRAZIOA.....37
5.7. HONDAKINEN KUDEAKETA.....40
5.8. UKITUTAKO ZERBITZUAK.....45
5.9. ERAKUNDEEKIN KOORDINATZEA.....48
5.10. OBRA OSAGARRIAK 48
5.10.1. Itxitura.....48
5.10.2. Instalazio osagarriak eta sarbideak.....49
5.10.3. Arriaga industrialderako sarbidea egokitzea 49
5.11. OBRAREN FASEAK ETA BEHIN-BEHINEKO EGOERAK 51
5.12. ELEKTRIFIKAZIOA.....53
5.13. SEGURTASUN- ETA KOMUNIKAZIO-INSTALAZIOAK 55
5.14. AFEKZIOAK ETA DESJABETZEAK.....56
5.15. SEGURTASUNA ETA OSASUNA 57
6. OBRA-PLANA.....57
7. PLANA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK 58
8. AURREKONTUA.....59
8.1. EGIKARITZE MATERIALAREN AURREKONTUA (EMA).....59
8.2. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (BEZIK GABE) 60
8.3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (BEZAREKIN) 60
8.4. ADMINISTRAZIOARI JAKINARAZTEKO AURREKONTUA 60
9. KONTRATISTAREN SAILKAPENA.....61
10. PREZIOAK BERRIKUSTEA 63
11. ONDORIOA 64

5.5.1. Hidrología 32
5.5.2. Paso de Arroyos 33
5.5.3. Descripción de la red de drenaje proyectada 34
5.6. INTEGRACIÓN AMBIENTAL..... 37
5.7. GESTIÓN DE RESIDUOS 40
5.8. SERVICIOS AFECTADOS..... 45
5.9. COORDINACIÓN CON ORGANISMOS. 48
5.10. OBRAS COMPLEMENTARIAS48
5.10.1. Cerramiento 48
5.10.2. Instalaciones auxiliares y accesos 49
5.10.3. Acondicionamiento del acceso al Polígono Arriaga 49
5.11. FASES DE OBRA Y SITUACIONES PROVISIONALES 51
5.12. ELECTRIFICACIÓN 53
5.13. INSTALACIONES DE SEGURIDAD Y COMUNICACIONES..... 55
5.14. AFECCIONES Y EXPROPIACIONES 56
5.15. SEGURIDAD Y SALUD 57
6. PLAN DE OBRA 57
7. DOCUMENTOS QUE INTEGRAN EL PROYECTO 58
8. PRESUPUESTO 59
8.1. PRESUPUESTO DE EJECUCIÓN MATERIAL PEM 59
8.2. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN (SIN IVA) 60
8.3. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN (CON IVA) 60
8.4. PRESUPUESTO PARA EL CONOCIMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN 60
9. CLASIFICACIÓN DEL CONTRATISTA. 61
10. REVISIÓN DE PRECIOS..... 63
11. CONCLUSIÓN 64

Memoria

1. SARRERA ETA XEDEA

Kantauri isurialdean zehar merkantzien garraioa handitzeko aukeren aurrean aurreikus daiteke etorkizun hurbilean areagotu egingo direla zirkulazioak. Hori dela-eta, trenbide-tarte batzuk bikoiztu egin beharko dira eta egungo trazaduraren ezaugarriak hobetu beharko dira, trafikoaren bolumenaren handitze hori lehendik dauden lineek xurga dezaten eta malgutasun handiagoa izan dezaten.

Helburu orokor horren barruan, Bilbo-Donostia linea bikoiztea planteatu da, Arriaga industrialdetik eta Altzola auzotik igarotzen den tartean (Elgoibarko udalerria). Horrek industrialderako egungo sarbidearen egoera hobetuko du, eta **Arriaga industrialdetik pasatzean bikoiztu egingo da**, Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektuan tunelean egingo den trenbide-saihesbidearekin lotzeko.

2. AURREKARIAK

Esku artean dugun proiektuaren lehen aurrekaria da "**Altzolako Saihesbidearen Informazio-azterlana**". Azterlan horretan, bide bikoitzeko saihesbideari dagozkion lanak definitu dira, hau da, Azkarateko mendatera doan errepidearen gaineko linea zabaltzea eta Arriaga industrialderako sarbidearen gaineko pasabide berria eraikitzea, bai eta Altzolan tunel bat eraikitzea ere. Azterlan horretan, gainera, elektrifikazio-, segurtasun-, komunikazio- eta gainegitura-obren balorazioa jaso da.

Trenbide Sektorearen Erregelamenduaren 10.5 artikuluan aurreikusitako jendaurrean erakusteko izapidea bete zen Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2011ko apirilaren 7ko Ebazpenaren bidez (2011ko maiatzaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 101. zenbakian, eta ekainaren 8an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean). Era berean, Elgoibarko Udaletxeko iragarki-oholean jarri zen hogeita hamar lanegunez. Izapide horietan ez zen ez alegaziorik ez iradokizunik jaso.

1. INTRODUCCIÓN Y OBJETO

Las expectativas de un aumento de transporte de mercancías a lo largo de la cornisa cantábrica permiten prever una intensificación de las circulaciones en un futuro cercano. Este hecho manifiesta la necesidad de desdoblar algunos tramos de vía y de mejorar las características del trazado actual, para que este aumento de volumen de tráfico pueda ser absorbido por las líneas existentes y dotarlas de una mayor flexibilidad.

En el marco de dicho objetivo general se plantea el desdoblamiento de la línea Bilbao-Donostia en el tramo de paso por el Polígono Industrial Arriaga y barrio de Altzola (municipio de Elgoibar), que mejorará la situación del acceso actual al Polígono Industrial, e incluye un **desdoblamiento a su paso por el Polígono de Arriaga** que conecta con la futura variante ferroviaria en túnel desarrollada en el Proyecto Constructivo de la Variante de Altzola.

2. ANTECEDENTES

El primer antecedente del proyecto que nos ocupa se trata del "**Estudio Informativo de la Variante de Altzola"**, donde se define las obras correspondientes a una variante en vía doble, con la ampliación del paso de la línea sobre la carretera que se dirige hacia el puerto de Azkárate y la construcción de un nuevo paso sobre el acceso hacia el polígono de Arriaga, así como la construcción de un túnel en Altzola. El estudio incluye además la valoración de las obras de electrificación, seguridad, comunicaciones y superestructura.

Se sometió al trámite de información pública previsto en el artículo 10.5 del Reglamento del Sector Ferroviario, mediante Resolución de 7 de abril de 2011 del Director de Infraestructura del Transporte, (publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 101, de 30 de mayo de 2011, y 8 de junio en el Boletin Oficial de Gipuzkoa), y expuesta durante el plazo de treinta días hábiles en el tablón de anuncios de Ayuntamiento de Elgoibar. Durante los referidos trámites no se recibieron alegaciones ni sugerencias.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2012ko ekainaren 29ko Ebazpenaren bidez, Proiektuaren Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Txostena egin zen, eta zenbait baldintza ezarri ziren eraikuntza-proiektua egiteko, bai eta babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak ere obrak egin eta zerbitzua ustiatu bitartean aintzat hartzeko.

Garraio Azpiegituren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek gainbegiratu zuten dokumentua, eta egiaztatu zuten teknikoki zuzena zela eta trenbideen arloko berariazko araudia betetzen zuela, bereziki Trenbide Sektorearen Erregelamenduaren 9. eta 10. artikuluak. Informazio-azterlana **2012ko abuztuan onartu zen behin betiko**.

2015ean, **bi eraikuntza-proiektu** egin ziren, kontuan hartuta Arriaga industrialdearen ondotik pasatzean linea bikoizteari dagozkion tarteen ezaugarriak, inplikazioak eta gauzatzeko epeak, bai eta ondoren tunelean egingo den saihesbidearen tartea ere Altzolaraino. Honako hauek dira bi proiektu horiek:

- **"Arriaga industrialderako sarbidea eraikitzeko proiektua".**
- **"Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektua".**

Haietan, eraikuntza-proiektuaren fasean tarte horretarako aintzat hartutako baldintzatzaile berrietara egokitu zen Informazio-azterlanaren trazadura, eta Arriaga Industrialdetik igarotzen den tartea bikoizteko obren definizioari ekin zitzaion, trazadura osoa egiteko lehen fase gisa. Horretarako, egungo trenbidearekin behin-behineko lotura definitu zen, Altzolako etorkizuneko tunela hasi aurretik. Bigarren fasean, berriz, Altzolarainoko tunel berria definitu zen.

Aurrerantzean, "**aurretiko proiektuak**" deituko diegu bi proiektu horiei.

2021eko abuztuan, ETSk, **"Altzolako saihesbidea eta Arriaga industrialderako sarbidea eraikitzeko proiektua Elgoibarren, Gipuzkoan"** izeneko kontratua esleitu zuen, aurretiko proiektuak berrikusteko eta eguneratzeko. Era berean, plataforma handitu egingo da aire zabalean doan bikoiztu beharreko tartean, etorkizunean egingo den bidegorriari leku egiteko. Trenbidearen trazadura lineatik igaroko diren S-900 unitate berrien baldintzetara egokitu beharko da, eta horretarako, galibo berriak hartu beharko dira kontuan.

Eguneratzeko eta berrikusteko lan hori, azkenean, bi jarduera independente eta osagarritan egitea erabaki zen, tunelean egingo den saihesbidearen lizitazioa arindu ahal izateko, egikaritze-epe luzeagoekin. Hala, "**Elgoibarren Arriaga industrialderako sarbidea**

Mediante Resolución de 29 de junio de 2012, del, del Director de Infraestructura del Transporte se formuló el Informe de Impacto Ambiental del Proyecto, estableciendo una serie de condiciones para la realización del proyecto constructivo y medidas protectoras y correctoras para su adopción durante la ejecución de las obras y la explotación del servicio.

El documento fue supervisado por los servicios técnicos de la Dirección de Infraestructura del Transporte, acreditándose que era correcto técnicamente y que cumplía la normativa específica en materia de ferrocarriles, en especial los Art. 9 y 10 del Reglamento del Sector Ferroviario. El Estudio Informativo fue **definitivamente aprobado en agosto de 2012**.

En el **año 2015** que se desarrollaron **dos proyectos constructivos** tomando en consideración las diferentes características, implicaciones, y plazos de ejecución de los tramos correspondientes al desdoblamiento de la línea al paso junto al Polígono Industrial Arriaga, y el tramo a continuación de variante en túnel hasta Altzola. Estos son:

- **"Proyecto Constructivo del acceso al Polígono Arriaga"**
- **"Proyecto Constructivo de la variante de Altzola"**

En ellos, se ajustó el trazado del Estudio Informativo a los nuevos condicionantes considerados para el tramo en la fase de proyecto constructivo, se abordaron la definición de las obras correspondientes al desdoblamiento del tramo de paso por el Polígono Industrial Arriaga, como primera fase de ejecución del trazado completo, definiéndose para el mismo una conexión provisional con la vía actual, antes del inicio del futuro túnel de Altzola. Y una segunda fase en donde se definía un nuevo túnel hasta Altzola.

En adelante, nos referiremos a estos dos proyectos como "**proyectos previos**".

En **agosto de 2021** ETS licita el contrato asociado **"Proyecto Constructivo de la variante de Altzola y el acceso al Polígono Arriaga en Elgoibar, Gipuzkoa"** que tiene por objeto revisar y actualizar los proyectos previos. A su vez se definirá una ampliación de la plataforma en el tramo a desdoblar que discurre a cielo abierto, para albergar la franja de implantación de un futuro bidegorri. Se deberá ajustar el trazado ferroviario a los condicionantes de las nuevas unidades S-900 que discurrirán por la línea, lo que supondrá la consideración de nuevos gálibos.

Esta actualización y revisión, finalmente se decide realizar en dos actuaciones independientes y complementarias, que permita agilizar la licitación de la

eraikitzeko eta trenbidea bikoizteko proiektu" honetan, 2022ko bertsioan sartu dira Arriaga industrialdetik igarotzen den tartea bikoizteko egin beharreko lanak. 2022ko martxoan idatzitako "Altzolako saihesbidea eraikitzeko proiektuan", (aurrerantzean, **"Altzolako tunelaren proiektua"),** zehaztutako jardueren osagarri dira jarduera horiek.

3. EGUNGO EGOERA

3.1. KARTOGRAFIA ETA TOPOGRAFIA

Obrak definitzeko behar den kartografia ETSk eman digu aurretiko proiektuetatik. **1:500 eskalan** egina eta ETRS89 erreferentzia-sistemara eraldatua, haren kalitatea aztertu eta egiaztatu da proiektuaren xede diren obrak definitzeko, eta eremutik kanpo osatu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1/1.000 kartografiarekin eta 1/5.000 kartografiarekin, arroak kokatu eta definitzeko.

3.2. GEOLOGIA ETA GEOTEKNIA

Atal honen xedea da Altzolako trenbide-saihesbideak zeharkatzen dituen litologien ingurune geologikoa eta portaera geoteknikoa deskribatzea.

Dokumentazio geologiko-geoteknikoa egiteko, oinarrizko informazio batetik abiatu gara, hauxe da, Euskal Autonomia Erkidegoko mapa geologikoaren (1:25.000 eskalan) 63-III Eibar orritik ateratako oinarrizko informaziotik, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) argitaratua.

Era berean, honako argitalpen hauetatik bildu da informazio kartografikoa:

- Espainiako mapa geologikoa, IGMEk argitaratua. 1/50.000 eskalan. 63. orria Eibar.
- Euskal Autonomia Erkidegoko industri harri eta mineralen mapa. 1/200.000 eskalan, EEErena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrogeologikoa. 1/100.000 eskalan, EEErena.

Argitalpen horiez gain, 2010ean idatzitako Altzolako Saihesbidearen Informazio-azterlanetik ere bildu da informazio geoteknikoa. Informazio hori erantsita dago bai planta geoteknikoetan bai luzetarako geoteknikoetan, eta, gainera, 4. eranskineko (Geologia eta geoteknia) gehigarrietan sartu da.

Aurretiko proiektuetan, hau da, eraikuntza-proiektu honen aurrekari hurbilenetan, bi zundaketa egin ziren

variante en túnel, con mayores plazos de ejecución. De esta forma se incluyen en el presente **"Proyecto Constructivo del Acceso al Polígono Arriaga y desdoblamiento de vía en Elgoibar"** en su versión 2022 las obras necesarias para la ejecución del desdoblamiento a su paso por el Polígono Industrial de Arriaga. Estas actuaciones son complementarias a las definidas en el "Proyecto Constructivo de la variante de Altzola" redactado en marzo de 2022, en adelante **"proyecto del túnel de Altzola".**

3. SITUACIÓN ACTUAL

3.1. CARTOGRAFÍA Y TOPOGRAFÍA

La cartografía necesaria para la definición de las obras ha sido facilitada por ETS de los proyectos previos. Realizada a **escala 1:500** y transformada al sistema de referencia ETRS89, se ha analizado y comprobado su calidad para definir las obras objeto de proyecto, y se ha completado fuera del ámbito con la cartografía 1/1.000 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y 1/5.000 para el emplazamiento y definición de cuencas.

3.2. GEOLOGÍA Y GEOTECNIA

El presente apartado tiene como objeto la descripción del entorno geológico y el comportamiento geotécnico de las diferentes litologías atravesados por la variante ferroviaria de Altzola.

Para la elaboración de la documentación geológico-geotécnica se ha partido de una información base procedente de la hoja 63-III Eibar del mapa geológico del País Vasco a escala 1:25.000, editado por el Ente Vasco de Energía (EVE).

Asimismo, se ha recopilado información cartográfica de las siguientes publicaciones:

- Mapa geológico de España editado por el IGME. Escala 1/50.000. Hoja nº63 Eibar.
- Mapa de Rocas y Minerales Industriales del País Vasco. Escala 1/200.000 del EVE.
- Mapa Hidrogeológico del País Vasco. Escala 1/100.000del EVE.

Además de estas publicaciones, se ha recopilado información geotécnica del Estudio Informativo de la Variante de Altzola, redactado en 2010, y cuya información se adjunta tanto en las plantas geotécnicas como en los longitudinales geotécnicos, además de incluirse en los apéndices correspondientes del Anejo nº 4. Geología y Geotecnia.

En los proyectos previos, antecedentes inmediatos del presente proyecto de construcción, se realizaron dos

(1-Z eta 2-Z), eta guztira 20 m lineal miatu ziren, proiektatutako egiturak egingo diren eremuan.

Egindako laborategiko lanen helburua izan zen trazaduran dauden materialen deformazio- nahiz konposizio-egoeren ezaugarriak zehaztea. Zundaketetan ateratako laginetan saiakuntzak egin ziren baliabide mekanikoen bidez (konpresio sinpleak harkaitzean).

3.2.1. Materialen karakterizazio geoteknikoa

3.2.1.1. Multzo Supraurgoniarra. Flysch beltza

Eraikuntza-proiektu honetan dagoen substratu harritsuaren unitatea da, ikuspegi geoteknikotik begiratuta. Hareharriz eta lutitaz osatutako flysch zatiak bereizten dira, eta hareharriak dira nagusi, Kretazeoaren garaikoak. Nodulu ferruginosoak ageri dituzte, eta nabarmena da mikaren presentzia.

Egituretan baliabide mekanikoen bidez egindako bi (2) zundaketetan (1-Z eta 2-Z) detektatu da unitate harritsu hori.

Hareharri eta limolita sanoak karakterizatzeko, bi (2) erresistentzia-saiakuntza egin dira konpresio sinplearen bidez, 30,8 Mpa-ko batez besteko RCSarekin.

3.2.1.2. Depositu kolubiala (Q_{COL})

Unitate hau granulometria desberdineko materialez osatua dago. Hala, lohiak eta buztinak ageri dira, plastikotasun txiki-ertainekoak, eta harea-kopuru aldakorrak dituzte, ML eta CL, Casagranderen sailkapenaren arabera; bai eta legar buztintsuak, GC.

Egindako lanen arabera, azpiko flysch-substratu harritsuaren (CS) gainean dago.

Altzolako saihesbidearen eraikuntza proiektuaren tarterako egindako laborategiko saiakuntzen bidez, 2,22 gm/cm3-ko itxurazko dentsitatea lortu da unitate honetarako; 34,7°-ko barne marruskaduraren batez besteko angelua (Ø), eta 0,26 kg/cm2-ko kohesioa (k).

3.2.2. Lur-erauzketak

Aztergai dugun zatian bi (2) lur-erauzketa nagusi proiektatu dira: bata 1+020 eta 1+110 KPen artean, Karkizanoko tunelaren irteeran, gehienez ere 11.45 metroko altuerarekin; eta bestea, guztira 60 metroko luzerarekin eta gehienez 5 metroko altuerarekin, zatiaren amaieran, 1+420 – 1+480 KPen artean.

sondeos (S-1 y S-2), con un total de 20 m lineales reconocidos, coincidiendo con las estructuras proyectadas.

Los trabajos de laboratorio realizados pretendieron caracterizar el estado, tanto deformacional como composicional, de los diferentes materiales presentes a lo largo de la traza. Sobre las muestras procedentes de los sondeos se realizaron ensayos mecánicos (compresiones simples en roca).

3.2.1. Caracterización Geotécnica de los Materiales

3.2.1.1. Complejo Supraurgoniano. Flysch negro

Es la unidad de sustrato rocoso presente en este Proyecto Constructivo desde el punto de vista geotécnico. Está formada por una alternancia flyschoide de areniscas y lutitas con predominio de las areniscas, de edad cretácica. Presentan nódulos ferruginosos y es notable la presencia de mica.

Esta unidad rocosa se ha detectado en los dos (2) sondeos mecánicos realizados en las estructuras (S-1 y S-2).

Para la caracterización de las areniscas y limolitas sanas se han llevado a cabo dos (2) ensayos de resistencia a compresión simple, con una RCS media de 30,8 Mpa.

3.2.1.2. Depósito Coluvial (Q_{COL})

Esta unidad está compuesta por materiales de diferente granulometría, así aparecen desde limos y arcillas de baja a media plasticidad que presentan cantidades variables de arena, ML y CL, según la clasificación de Casagrande; a gravas arcillosas, GC.

Según los trabajos realizados, aparece localizada sobre el sustrato rocoso flyschoide subyacente (CS).

A través de los ensayos de laboratorio realizados para el tramo del P.C. Variante de Altzola se obtiene, para esta unidad, una densidad aparente de 2.22 gm/cm3; un ángulo de rozamiento interno medio (Ø) de 34.7° y una cohesión(c) de 0.26 kg/cm2.

3.2.2. Desmontes

En el tramo objeto de estudio se han proyectado dos (2) desmontes principales: uno entre los pp.1+020 y 1+110, a la salida del túnel de Karkizano con una altura máxima de 11.45 metros; y otro con una longitud total de 60 metros y una altura máxima de 5 metros, al final del tramo entre los pp.1+420 – 1+480.

Hurrengo koadroan, tarte honetan proiektatutako lur-erauzketen tarte-zatiketa ageri da:

Hasierako KP	Amaierako KP	Malda	Gehieneko altuera (m)
1+020	1+110	1H/2V	11,5
1+150	1+190	1H/1V	1,5
1+300	1+360	Birtaluzatze horizontala ezkerretik	
1+420	1+480	1H/1V	5

3.2.3. Betegarriak

Aztergai dugun zatian bi betegarri proiektatu dira, handiena 80 metro luzekoa guztira, 1+200 eta 1+280 KPen artean, gehienez ere 6 metroko altuerarekin.

Hona hemen proiektatutako betegarrien laburpen-koadroa:

Hasierako KP	Amaierako KP	Gehieneko altuera (m)
1+200	1+280	6
1+370	1+420	1,15

Materialen ezaugarriak

Zabalgunea egiteko erabiliko diren materialek QS2 kalitatea izango dute, lehendik dagoen trenbideko betegarrian oinarritzen direnean.

Plataforman, lubeta handitzen den tarteetan, aukeratutako materialak 0,5 m-ko lodiera izango du haren gainaldean. Material horrek % 5-15 bitarteko (QS2) material xehearen ehunekoa izango du, eta harrobikoa izango da.

Prozedura hori kontuan hartuko da, oro har, aztertutako tarteko lubeta guztietarako.

Forma-geruza

Forma-geruzarako harrobiko materialak erabiliko dira.

Forma-geruzaren lodierak 30 eta 55 cm-koak dira QS2 eta QS1 materialetan, hurrenez hurren.

Zimendua tratatzea eta prestatzea

Oro har, honako irizpide hauek hartu beharko dira kontuan:

- Egungo lubeta saneatuko da etorkizuneko plataforma zabalduko den aldean, kasu horretan, ezkerreko aldea. Hala, 0,5 metroko saneamendua sortuko da, eta dagoen materialaren ordez lubeta motako betegarriak egingo dira, gehienez ere 1(H):1(V) maldako ezpondak dituzten bankaden bidez. Hurrengo irudian ageri den bezala:

En el siguiente cuadro, se incluye una tramificación de los desmontes proyectados en este tramo:

pk inicio	pk final	Pendiente	Altura máxima (m)
1+ 020	1+ 110	1H/2V	11,5
1+ 150	1+ 190	1H/1V	1,5
1+ 300	1+ 360	Retaluzado horizontal por la izda	
1+ 420	1+ 480	1H/1V	5

3.2.3. Rellenos

En el tramo objeto de estudio se han proyectado dos rellenos, el mayor de ellos presenta una longitud total de 80 metros, entre los pp.kk. 1+200 al 1+280, y con una altura máxima de 6 metros.

A continuación, se incluye un cuadro resumen de los rellenos proyectados:

pk inicio	pk final	Altura máxima (m)
1+ 200	1+ 280	6
1+ 370	1+ 420	1,15

Características de los materiales

Los materiales a emplear en la formación de la explanada se consideran una calidad QS2 en los casos en los que se apoye sobre relleno del ferrocarril existente.

Para la plataforma en los tramos en los que se amplía el terraplén, la coronación del mismo tendrá un espesor de 0,5 m de material seleccionado que cumpla un porcentaje de finos de entre 5 – 15% (QS2), que serán suministrados de cantera.

Este procedimiento se tendrá en cuenta con carácter general para todos los terraplenes del tramo estudiado.

Capa de forma

Para la capa de forma se utilizarán los materiales procedentes de cantera.

Los espesores de capa de forma son de 30 y 55 cm en materiales QS2 y QS1, respectivamente.

Tratamiento y preparación del cimiento

Se deberán contemplar los siguientes criterios con carácter general:

- Se procederá al saneo del terraplén actual en el margen de ampliación de la futura plataforma, en este caso, el margen izquierdo. De esta manera se generará un saneo de 0.5 metros, y se procederá a la sustitución del material existente por material de relleno tipo terraplén, por medio de bancadas con taludes de

3.2.4. Zabalgunea

Jarraian ageri den koadroan jaso da zabalgunearen kalitatearen tarte-zatiketa aztertutako tartean zehar:

Hasierako KP	Amaierako KP	Proiektatutako obra	Zabalgunearen kalitatea
1+000	1+124	Plataforma handitzea eskuinaldean harkaitzean egindako erauzketaren bidez.	QS3
1+142,5	1+198	Plataforma handitzeko zulaketa egitea bi aldeetan.	QS2
1+198	1+270	Plataforma handitzea ezkerreko aldeko lubeta handituta	QS2
1+288	1+369	Plataforma handitzea ezkerreko aldean zulaketak/lur-erauzketa eginez.	QS2
1+369	1+420	Plataforma handitzea lubeta handituta ezkerreko aldean behin-behineko konexioaren lekuan.	QS2
1+420	1+490	Plataforma handitzea ezkerreko aldean lur-erauzketa bidez behin-behineko konexioa egiteko.	QS2

Plataformarako QS2 kalitatea aukeratu da lehendik dagoen lubeta handitzen den tarteetan, 0,5 m-ko material lodierarekin lubetaren gainaldean. Harkaitzean egindako erauzketaren hasierako tartean izan ezik, han QS3 izango bailitzateke plataformaren euskarri-hondoa.

Zabalgunea harrobiko materialez egingo da. Tarte bakoitzean aipatu diren zabalgune-kalitateak lortzeko beharrezko baldintzak beteko dituzte material horiek.

3.2.5. Betegarriaren / lur-erauzketaren zimendua bermatzea

Ondoko taulan jaso da korridoreko tarte-zatiketa:

Hasierako KP	Amaierako KP	Betegarri/lur-erauzaren euskarriaren litologia	Euskarriare kalitatea
1+000	1+300	Hareharriak eta limolitak (Flysch beltza)	QS3
1+300	1+490	Depositu kolubiala >%40 finekin	QS1

3.2.6. Egiturak

Atal honetan, tartean dauden egituren zimenduen ezaugarri nagusiak aztertu dira, bereziki zimendatze-kotak, karga onargarriak eta horietako bakoitzerako espero diren zimenduak.

Arriaga Industrialderako Sarbidea Eraikitzeko Proiektuak bi (2) egitura ditu, GI-2634 errepidearen eta

pendiente no superior al 1(H):1(V). Tal y como se observa en la siguiente figura:

3.2.4. Explanada

A continuación, se incluye un cuadro con la tramificación de la calidad de la explanada a lo largo del tramo estudiado:

pk inicio	pk final	Obra Proyectada	Calidad de la Explanada
1+000	1+124	Ampliación de plataforma en margen derecha mediante desmonte en roca.	QS3
1+142,5	1+198	Cajeo para ampliación de plataforma en ambas márgenes.	QS2
1+198	1+270	Ampliación de plataforma con ampliación de terraplén en margen izquierda.	QS2
1+288	1+369	Ampliación de plataforma mediante cajeo/desmonte en margen izquierda.	QS2
1+369	1+420	Ampliación de plataforma sobre ampliación de terraplén en margen izquierda coincidente con conexión provisional.	QS2
1+420	1+490	Ampliación de plataforma para conexión provisional mediante desmonte en margen izquierda.	QS2

Se considera una calidad QS2 para la plataforma en los tramos en los que se amplía el terraplén existente con un espesor de material de 0,5 m en coronación de terraplén. Se exceptúa el tramo inicial de desmonte en roca, donde el fondo de apoyo de la plataforma sería QS3.

La explanada estará formada por materiales procedentes de cantera que cumplan las condiciones para alcanzar las calidades de explanada mencionadas en cada tramo.

3.2.5. Apoyo del cimiento del Relleno / Desmonte

La tramificación del corredor se incluye en el siguiente cuadro:

pk inicio	pk final	Litología del apoyo del relleno / desmonte	Calidad del apoyo
1+000	1+300	Areniscas y limolitas (Flysch negro)	QS3
1+300	1+490	Depósito Coluvial con > 40% finos	QS1

3.2.6. Estructuras

En este apartado se analizan las principales características de la cimentación de las diferentes estructuras presentes en el tramo y particularmente las cotas de cimentación, las cargas admisibles y los asientos esperables para cada una de ellas.

El Proyecto de Construcción del Acceso al Polígono Arriaga consta de dos (2) estructuras que salvan la

Arriaga industrialdera bertara sartzeko errepidearen gainetik igarotzen direnak.

CS unitate litologikoko (multzo supraurgoniarra) hareharrien eta limoliten gainean oinarritzen dira proiektatutako egiturak.

3.2.6.1. GI-2634_1+130 errepideko zubia

Egitura hori aztertzeko, honako landa-lan hauetan bildutako informazioa erabili da:

- 1-Z.

Horma-bularrak Kretazeoko substratu harritsuan bermatuko dira; substratu hori Multzo supraurgoniarreko hareharriz eta limolitaz (CS) osatua da; izan ere, baliabide mekanikoen bidez egindako zundaketatik (1-Z) ondorioztatzen denez, +27,40 kotan ageri da harkaitz sanoa (G.M.II).

Ikuspuntu hidrogeologikotik begiratuta ez da ur freatikoaren mailarik detektatu. Kanpaina egin ondoren hautemandako ur-mailak zulaketaren ur-hondakinak dira.

Baliabide mekanikoen bidez egindako zundaketan eta hartan jasotako laginetan egindako saiakuntzetan lortu diren datuek honako balio hauek erakutsi dituzte:

- RQD= 80 - % 100
- $RCS_{batez\ beste}$ = 30,8 MPa
- Meteorizazio-maila = M(II)

UNITATEA	OINARRIAK	Presio onargarria unitateko (Azalekoa) Mp
Hareharriak eta limolitak (C_S)	Esk. eta ezk. horma-bularra	2,331

Karga onargarria

Ondoko taulan, baliabide mekanikoen bidez egindako zundaketan aurkitutako harkaitz-kotak jaso dira:

EGITURA	ZUNDAKETA	HARKAITZ SANOARI KOTA (G.M.II)
P.I. GI-2634	1-Z	27,4

Hautemandako harkaitz-kota

3.2.6.2. Industrialdera sartzeko zubia_1+280_1+280

Egitura hori aztertzeko, honako landa-lan hauetan bildutako informazioa erabili da:

- 2-Z.

carretera GI-2634 y la carretera de acceso al propio Polígono Arriaga.

Las estructuras proyectadas apoyan sobre la alternancia de areniscas y limolitas de la unidad litológica CS (Complejo Supraurgoniano).

3.2.6.1. Puente Carretera GI-2634_1+130

Para el análisis de esta estructura se ha utilizado la información recopilada en los siguientes trabajos de campo:

- S-1.

Los estribos apoyan sobre el sustrato rocoso cretácico compuesto por una alternancia de areniscas y limolitas del Complejo Supraurgoniano (CS), ya que según se desprende del sondeo mecánico realizado (S-1) la roca sana (G.M.II) aparece a la cota +27,40.

Desde el punto de vista hidrogeológico no se ha detectado nivel de agua freática. Los niveles de agua detectados con posterioridad a la ejecución de la campaña se corresponden con los restos del agua de perforación.

Los datos obtenidos en el sondeo mecánico y en los ensayos realizados sobre muestras recogidas en éste, reflejan los siguientes datos:

- RQD= 80 - 100%
- RCS_{medio} = 30,8 MPa
- Grado de meteorización = M(II)

UNIDAD	APOYOS	Presión Admisible Unitaria (Superficial) Mpa
Areniscas y Limolitas (C_S)	Estribo Drcho e Izdo	2,331

Carga admisible

A continuación, se incluye una tabla con las cotas de roca localizadas en el sondeo mecánico realizado:

ESTRUCTURA	SONDEO	COTA ROCA SANA (G.M.II)
P.I. GI-2634	S-1	27,4

Cota de roca detectada

3.2.6.2. Puente Acceso Polígono Arriaga_1+280

Para el análisis de esta estructura se ha utilizado la información recopilada en los siguientes trabajos de campo:

- S-2.

Horma-bularrak Kretazeoko substratu harritsuan bermatuko dira; substratu hori Multzo supraurgoniarreko hareharriz eta limolitaz (CS) osatua da; izan ere, baliabide mekanikoen bidez egindako zundaketatik (1-Z) ondorioztatzen denez, +26,00 kotan ageri da harkaitz sanoa (G.M.II).

Baliabide mekanikoen bidez egindako zundaketan eta hartan jasotako laginetan egindako saiakuntzetan lortu diren datuek honako balio hauek erakutsi dituzte:

- RQD= 0 - % 20
- $RCS_{batez\ beste}$ = 30,8 MPa
- Meteorizazio-maila = M(III)

Egitura hori gauzatzen den bitartean trenbideko zirkulazioa mantendu behar denez, planteatu da pilote-pantailen bidez egitea eraikuntza-prozesua, egungo plataformari eutsi ahal izateko.

Bi horma-bularren zimenduak egiteko, zimendu sakonak egingo dira harkaitz sanoan, lehendik dauden betegarri antropogenikoen geruza azalekoena kendu ondoren.

UNITATEA	EUSKARRIAK	Presio onargarria unitateko (Sakona) Mpa	
		q_p	τ_f
Hareharriak eta limolitak (C_S)	Esk. eta ezk. horma-bularra	2,355	0,24

Karga onargarria.

Ondoko taulan, baliabide mekanikoen bidez egindako zundaketan aurkitutako harkaitz-kotak jaso dira:

EGITURA	ZUNDAKETA	HARKAITZ-KOTA (G.M.III)
P.I. Arriaga Indus.	2-Z	26

Hautemandako harkaitz-kota

3.2.6.3. Pasabidea 1+130

Mikropilotez egindako zimenduen bidez oinarritzea aurreikusi da, eta horrek balioko du gainera bidegorriaren hegal berriak eta aurreko balastoa babesteko horma bermatzeko. Hormigoi armatuzko mentsula baten bidez bermatuko da entzepatuan.

Sustapen Ministerioaren "Errepideko obretan mikropiloteak proiektatzeko eta egiteko gidaren" (2005) arabera, honako hau da hareharrietan harkaitzean sartzeko erresistentzia:

Los estribos apoyan sobre el sustrato rocoso cretácico compuesto por una alternancia de areniscas y limolitas del Complejo Supraurgoniano (CS), ya que según se desprende del sondeo mecánico realizado (S-1) la roca sana (G.M.II) aparece a la cota +26,00.

Los datos obtenidos en el sondeo mecánico y en los ensayos realizados sobre muestras recogidas en éste, reflejan los siguientes datos:

- RQD= 0 - 20%
- RCS_{medio} = 30,8 MPa
- Grado de meteorización = M(III)

Dado que es necesario mantener la circulación ferroviaria durante la ejecución de esta estructura, se plantea un proceso de construcción mediante pantallas de pilotes que permitan soportar la plataforma actual.

Las cimentaciones de ambos estribos podrán ejecutarse mediante cimentación profunda sobre roca sana, una vez eliminada la capa más superficial de rellenos antropogénicos existentes.

UNIDAD	APOYOS	Presión Admisible Unitaria (Profunda) Mpa	
		q_p	τ_f
Areniscas y Limolitas (C_S)	Estribo Drcho e Izdo	2,355	0,24

Carga admisible.

A continuación, se incluye una tabla con las cotas de roca localizadas en el sondeo mecánico realizado:

ESTRUCTURA	SONDEO	COTA ROCA (G.M.III)
P.I. Pol. Ind. Arriaga	S-2	26

Cota de roca detectada

3.2.6.3. Pasarela 1+130

Se prevé su apoyo mediante una cimentación con micropilotes que sirva a su vez para el apoyo de las nuevas aletas del bidegorri y del muro guardabalasto frontal. El apoyo en el encepado se realiza mediante una ménsula de hormigón armado

Según la "Guía para el proyecto y ejecución de micropilotes en obras de carretera" del Ministerio de Fomento (2005), la resistencia de empotramiento en roca en areniscas es:

TABLA 3.3. RESISTENCIA UNITARIA DE CÁLCULO EN EL EMPOTRAMIENTO EN ROCA, POR FUSTE Y PUNTA (GRADO ISRM ≤ III)

TIPO DE ROCA	$f_{e,d}$ (MPa)	$q_{pe,d}$
Margas y margocalizas	0,15 - 0,40	$0,07 \cdot q_u$
Pizarras y otros esquistos	0,20 - 0,30	$0,07 \cdot q_u$
Areniscas	0,30 - 0,45	$0,07 \cdot q_u$
Calizas y dolomías	0,40 - 0,50	$0,10 \cdot q_u$
Granitos y basaltos	0,40 - 0,60	$0,10 \cdot q_u$

q_u: Resistencia a compresión simple de la roca, determinada preferiblemente según UNE 22950-1, o en su defecto mediante correlación con otros ensayos. Deberá determinarse este parámetro en la zona de influencia de la punta, definida conforme a lo especificado en el epígrafe 3.3.1.2.

fe,d=0,30 MPa-ko fuste-balioa hartu da (handitutako erreakzioekin alderatu behar da “Errepideko obretan mikropiloteak proiektatzeko eta egiteko gidaren” arabera). Punta bidezko qep,d erresistentzia baztertu da.

GM II harkaitza 1,30 metroko sakoneran agertu da gutxi gorabehera, hau da, +27,00 kotan.

3.2.6.4. Pasabidea 1+280

Horma-bularren zimenduak GM IV substratu harritsuan sartutako mikropiloteen bidez egingo dira. Mikropiloteek 200 mm-ko diametroa dute, fck=30 N/mm2, eta tutu formako armadura 114,3x9 TM -80. Horma-bularren gainean, halaber, balastoa babesteko hormak egingo dira lurrari eusteko.

Erdiko bi zutabeek sekzio zirkularra dute, 70 cm-ko diametrokoa, eta hormigoi armatuzkoak dira. Goiko aldean hormigoi armatuzko karga-habeak egingo dira, habe aurrefabrikatuak bermatzeko.

Bi zutabeak zapaten bidez bermatuko dira GM IV substratu harritsu hautsiaren gainean, 0,30 MPa-ko tentsio onargarriarekin eta zimendu-putzu txiki batzuen laguntzarekin. Dagoen gas-sarearen posizioa berrikusi beharko da eta, hala badagokio, desbideratu egin beharko da, zimenduak egin ahal izateko.

3.3. PLANGINTZA

Elgoibarko udal-barrutiaren barnean daude proiektuaren xede diren jarduera guztiak. Udalerri horrek badu Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2013ko urtarrilaren 22an onartua, eta aldaketa puntuala 2018an egina.

Arriaga industrialdeko tartean, egungo plataforma eskuineko aldetik handitzeko lanek **jarduera ekonomikoetarako (industria) lurzoru urbanizagarriei** eragiten diete **edo industria-erabilera edo zerbitzu-azpiegitura** (araztegiaren kasuan) **duten jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoruei**. Lehendik dagoen plataformaren ezkerreko aldeko handitze lanek edo okupazioek, berriz, plataformaren eta N-634 errepide nazionalaren artean, **“Lurzoru urbanizaezina, Ingurumen-hobekuntzako**

TABLA 3.3. RESISTENCIA UNITARIA DE CÁLCULO EN EL EMPOTRAMIENTO EN ROCA, POR FUSTE Y PUNTA (GRADO ISRM ≤ III)

TIPO DE ROCA	$f_{e,d}$ (MPa)	$q_{pe,d}$
Margas y margocalizas	0,15 - 0,40	$0,07 \cdot q_u$
Pizarras y otros esquistos	0,20 - 0,30	$0,07 \cdot q_u$
Areniscas	0,30 - 0,45	$0,07 \cdot q_u$
Calizas y dolomías	0,40 - 0,50	$0,10 \cdot q_u$
Granitos y basaltos	0,40 - 0,60	$0,10 \cdot q_u$

q_u: Resistencia a compresión simple de la roca, determinada preferiblemente según UNE 22950-1, o en su defecto mediante correlación con otros ensayos. Deberá determinarse este parámetro en la zona de influencia de la punta, definida conforme a lo especificado en el epígrafe 3.3.1.2.

Se toma un valor de fuste de fe,d=0,30 MPa (a comparar con reacciones mayoradas según “Guía para el proyecto y ejecución de micropilotes en obras de carretera”). Se desprecia la resistencia por punta qep,d.

Profundidad de aparición de la roca GM II a 1,30 metros aproximadamente, esto es, a cota +27,00.

3.2.6.4. Pasarela 1+280

La cimentación de los estribos se realiza mediante micropilotes empotrados en el sustrato rocoso fracturado GM IV. Los micropilotes son de diámetro 200 mm, fck=30 N/mm2, y armadura tubular 114,3x9 TM-80. Sobre los estribos se ejecutan asimismo los muros guardabalastos para la contención de tierras.

Las dos pilas centrales son de sección circular de hormigón armado de diámetro 70 cm En su parte superior se ejecutan vigas cargadero de hormigón armado para el apoyo de las vigas prefabricadas.

Ambas pilas se mediante zapatas sobre el sustrato rocoso fracturado GM IV, con una tensión admisible de 0,30 MPa, y con ayuda de pequeños pozos de cimentación. Será necesario revisar la posición de la red de gas existente y desviarla en su caso para permitir la ejecución de la cimentación.

3.3. PLANEAMIENTO

Las actuaciones objeto de proyecto se encuentra íntegramente incluidas en el término municipal de Elgoibar, que cuenta con un Plan General de Ordenación Urbana aprobado el 22 de enero de 2.013 y una modificación puntual de 2018.

En el tramo del Polígono Industrial Arriaga, las ampliaciones de la plataforma actual por su margen derecha afectan a **suelos urbanizables parcela de actividades económicas (industrial) o urbanos de actividades económicas con uso industrial o infraestructura de servicios** (en el caso de la depuradora). Las ampliaciones u ocupaciones por la margen izquierda de la plataforma existente, entre la misma y la carretera nacional N-634, afectarían a un área clasificada como “**Suelo no urbanizable, Zona de Mejora Ambiental**”, unidad ambiental de ordenación

Eremu” gisa sailkatutako eremu bati eragingo liokete. Lurzoru urbanizaezina antolatzeko ingurumen-unitatea da, degradazio-prozesuen ondorioz beren potentzial ekologikoaren parte handi bat galdu duten eremuetan definitzen dena. Eremu horietan ingurumena leheneratzeko lanak egin behar dira, duten kalitatea handitzeko. Hasierako zatian, bidegorri berriak **“Hirugarren sektoreko lurzoru urbanizagarria”** ukituko du.

Esan daiteke plangintzak ez duela baldintzatzen proiektuaren trazaduraren diseinua, kontuan hartuta Arriagan trenbidea bikoizteak ekarriko duen hobekuntza handia, egungo trazadurari dagozkion lurzoruak liberatu egingo baitira. Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) proposatzen da lur horietan bidegorri bat egitea, bizikleta-bideen oinarrizko foru-sarearekin lotuko dena.

4. LEGEZKO XEDAPENAK ETA ARAUDIA BETETZEA

Kapitulu bakoitzean proiektatutako obren definizioak bete egiten ditu proiektua idatzi den datan aplikatzekoak diren legezko xedapen guztiak eta arauzko araudi teknikoa.

Aplikatu beharreko araudi guztia jasota dago 1.4. puntuan (Baldintza Orokorren Agiriko I. Kapitulua aplikatzeko xedapenak) eta 1. Eranskinean (Araudia).

4.1. KOSTALDEEI BURUZKO 22/1988 LEGEA BETETZEN DELA ADIERAZTEA

Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 44.7 artikuluaren eta lege hori garatzeko eta betearazteko Erregelamendu Orokorraren 96.1 artikuluaren arabera (abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretuari dagokiona), berariaz adierazten da “Altzolako saihesbidea (Gipuzkoa) eraikitzeko proiektuak” betetzen dituela aipatutako Kostaldeei buruzko Lege horren xedapenak, bai eta hura garatzeko eta aplikatzeko ematen diren arau orokorrak eta espezifikoak ere.

4.2. EUSKADIKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI BURUZKO 10/2021 LEGEA BETETZEA

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea betetzeari dagokionez, lege horren 84. artikuluaren 3. atalean honako hau adierazten da:

“Obra-kontratuak egikaritzeko klausula administratiboen eta baldintza tekniko berezien orrien idazketan, haietako bakoitzari begira erabili

del suelo No Urbanizable que se define sobre aquellas zonas, que producto de procesos de degradación, han perdido buena parte de su potencial ecológico, y en las que es preciso acometer labores de restauración ambiental con el fin de conseguir incrementos de la calidad de las mismas. En la parte inicial, el nuevo bidegorri afecta a “**Suelo urbanizable terciario**”.

Se puede considerar que el planeamiento no supone un condicionante a la hora del diseño del trazado de proyecto, teniendo en cuenta la importante mejora que supone el desdoblamiento ferroviario en Arriaga, con la liberación de los suelos correspondientes al trazado actual para los que se propone en el PGOU la reconversión en un bidegorri, que conectará con la red básica foral de vías ciclistas.

4. CUMPLIMIENTO DE DISPOSICIONES LEGALES Y NORMATIVA

La definición de las obras proyectadas en cada uno de sus capítulos cumple todas las Disposiciones legales y la Normativa técnica reglamentaria aplicables en la fecha de redacción del proyecto.

Toda la normativa aplicable se encuentra recogida en el punto 1.4 Disposiciones de aplicación del Capítulo I del Pliego de Prescripciones Generales, y en el Anejo nº1 Normativa.

4.1. DECLARACIÓN DE CUMPLIMIENTO DE LA LEY 22/1988 DE COSTAS

Conforme al artículo 44.7 de la Ley 22/1988 de 28 de julio de Costas, y el artículo 96.1 del Reglamento General para su desarrollo y ejecución, correspondiente al Real decreto 1471/1989 de 1 de diciembre, se declara expresamente que el “Proyecto Constructivo de la Variante de Altzola, Gipuzkoa” cumple las disposiciones de la citada Ley de Costas, así como las normas generales y específicas que se dicten para su desarrollo y aplicación.

4.2. CUMPLIMIENTO DE LA LEY 10/2021 DE ADMINISTRACIÓN AMBIENTAL DE EUSKADI

En relación al cumplimiento de la LEY 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, en el apartado 3 del artículo 84 de la misma se indica que:

“En la redacción de los pliegos de cláusulas administrativas y prescripciones técnicas particulares para la ejecución de contratos de obras se indicarán los porcentajes de subproductos, materias primas secundarias, materiales reciclados o

beharreko azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien, material birziklatuen edo berrerabiltzeko xedean prestatzeko prozesuetatik eratorrien ehunekoak adieraziko dira. Gutxienez % 40an erabiliko dira material horiek, behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoak direla-eta ehuneko hori murriztea beharrezkoa denean izan ezik".

Obrako material gehienak hormigoia eta altzairua direnez, material birziklatuak edo berrerabilgarriak % 31,82 izango dira. Material birziklatutzat hartu dira barretan erabilitako altzairua, hodietan eta errailetan erabilitako altzairu ijeztua, zagorrak, forma-geruza, zoru hautatua, zoru egokia, zementu-zorua, material iragazlea, agregakinak, harri-lubeta, zura, etab., eta berrerabilgarrien artean, berriz, errailak sartzeko erabiltzen diren errailak.

5. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektu honetan definitutako obren xedea da Arriaga industrialdeko tartean trenbidea bikoiztea. Horretarako, dagoen plataforma aprobetxatuko da eta plataformaerdien bidez handituko da behin-behineko egoeretan tren-zerbitzua mantendu ahal izateko. Honako obra hauek egingo dira:

- **Trenbide-plataforma handitu**, horrek berekin daramatzan lur-mugimenduekin hasierako 1+000 KPtik (trenbide bikoitza) 1+509,69 KP arte (trenbide bikoitza), batez ere ezkerreko aldetik, bikoizketaren hasierako eremuan eta Altzolako etorkizuneko tunelaren sarreran izan ezik, horietan eskuineko aldetik bikoiztuko baita.

- **Trenbidea muntatu** Ezkerreko bideko 1+159 KPtik 1+460 KPra eta eskuineko bideko 1+023 eta 1+463 KPen artean, tarte batzuk alborantz mugitzea handitutako plataforma igarotzeko, eta trenbidea desegitea aprobetxatuko ez diren tarteetatik kanpo.

- **Etorkizuneko bidegorria egiteko plataforma** trenbidetik bereiz eta haren paraleloan ezkerreko aldetik, eta 56+942 KP-tik 58+047 KP-ra eta 56+637 KP-tik 56+901 KP-ra eta Altzolako tunel berriaren irteerako eskuineko bidea 1+272,108 KP-tik 1+461,964 KP-ra arteko **egungo bidearekin lotzeko zatia desegitea** (Altzolako saihesbidearen proiektuko bide berriaren ardatzaren 1+272,108 KP-a 56+753 KP-ari dagokio).

- Trenbide-plataforma handitzearen eta etorkizuneko bidegorriaren ondoriozko **egiturak eta fabrika-obrak:** GI-2634

provenientes de procesos de preparación para la reutilización que se tengan que utilizar para cada uno de ellos. El porcentaje mínimo de utilización de dichos materiales será del 40 %, salvo que por motivos técnicos justificados este porcentaje deba ser reducido."

Dada la naturaleza de la obra en donde la mayor parte de los materiales son hormigón y acero se ha alcanzado un 31,82% de materiales reciclados o reutizables. Se han considerado como materiales reciclados el acero empleado tanto en barras, en acero lamido en tubos y en los carriles y las zahorras, capa de forma, suelo seleccionado, suelo adecuado, suelo cemento, material filtrante, áridos, escollera, madera, etc.. y entre los reutilizables los carriles que se emplean para la hinca de carriles.

5. DESCRIPCIÓN DEL PROYECTO

Las obras definidas en el presente proyecto tienen por objeto el desdoblamiento de vía en el tramo del polígono de Arriaga, aprovechando para ello la plataforma existente y ampliándola mediante semiplataformas con situaciones provisionales que permitan mantener el servicio ferroviario. Estas comprenden:

- **Ampliación de plataforma ferroviaria** con los movimientos de tierra asociados desde el inicio 1+000 (vía doble) hasta el 1+509,69 (vía doble)**,** fundamentalmente por margen izquierda salvo en la zona del inicio del desdoblamiento y en la entrada al futuro túnel de Altzola donde se duplica por margen derecha.

- **Montaje de vía** desde P.K. 1+159 hasta el 1+460 de la vía izquierda y entre el P.K. 1+023 y el 1+463 de la vía derecha, tramos de ripado para paso de ampliación de plataforma, y desmantelamiento de la vía fuera de los tramos de aprovechamiento.

- **Plataforma para un futuro bidegorri** de forma independiente al ferrocarril y en paralelo por su margen izquierda, y **desmantelamiento de vía actual** y **desmantelamiento de vía actual** entre el PK 56+942 hasta el 58+047 y entre el PK 56+637 hasta el 56+901 y el tramo de conexión de la vía derecha de la salida del nuevo túnel de Altzola con la vía actual entre el PK 1+272,108 hasta el 1+461,964. (el PK 1+272,108 del eje de la nueva vía del proyecto de la Variante de Altzola se corresponde con el PK 56+753).

- **Estructuras y obras de fábrica** derivadas de la ampliación de plataforma ferroviaria y futuro

errepidearen gainean dagoen zubia handitzea, Arriaga industrialderako sarbidearen gainean zubi berria faseka egitea, etorkizunean egingo den bidegorria igarotzeko bi pasabide berri egitea, ganga motako bi ZDL handitzea horma-hegalekin, eta hormigoi armatuzko mentsula-horma egitea trenbide berriaren trazaduraren ondoko Claudio San Martin S.A. enpresaren trazadura berriari ahalik eta kalte txikiena egiteko.

- Behin-behineko egoeretan tren-zerbitzua mantentzeko beharrezkoak diren **elektrifikazioa eta segurtasun- eta komunikazio-instalazioak.** Elektrifikazioa eta behin betiko instalazioak proiektu independente batean jaso dira, eta haiek koordinatu dira beharrezko obra zibil bateragarria proiektu honetan sartzeko.

Jarraian, proiektuaren ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu:

5.1. TRENBIDEAREN TRAZADURA

Arriaga industrialderako sarbideko trenbidearen trazadura eta trenbidearen bikoizketa Altzolako tunelaren proiektuarekin batera eta modu bateragarrian definitu dira.

Trafiko mistorako zabalera metrikoa (1.000 mm) duen bide bikoitzeko linea bati dagozkion parametroak hartu dira kontuan, erosotasun- eta segurtasun-baldintza egokiak izan daitezen, dagoen egiturari ahalik eta kalte txikiena eginez, eta etorkizuneko mantentze-lanak ahalik eta gehien murrizten saiatuz.

- Zirkulazio-abiadura = 90 km/h
- Luzetarako gehieneko malda = ‰ 15
- Luzetarako gutxieneko malda = ‰ 5

Bikoizketaren hasieran desbideratutako bidearen lotura-eremuan, kontuan hartu behar da 40 km/h-ko desbideratze-abiadurak onartzen dituen trenbideko aparatua jarriko dela. Beraz, lotura-puntu horretan 40 km/h-ko abiadura hartuko da kontuan.

Bide bakarreko behin-behineko konexiorako, 60 km/h-ko diseinu-abiadura ezarri da.

